

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteazkena, 2011ko otsailaren 9a. VIII. urtea. 2.171. zenbakia. [www.tolosaldea.hitza.info](http://www.tolosaldea.hitza.info)

## Ikusmenak ikasleengan izan dezakeen eragina aztertu dute Uzturpe Ikastolan

Lehen Hezkuntzako lehenengo eta bigarren mailako ikasleen balorazioa egin dute bi optometristek, hainbat ariketa eta test erabili dituzte horretarako

Teresa de Olabarria adituak hitzaldia eskainiko du bihar Ibarako ikastolan, 18:00etan; gaiarekiko interesa duen pertsona oro gonbidatu du zuzendaritzak 07

### Bakarrizketa egile euskaldunak berriro lehiatzen Villabonan

Gurea aretoan sei bakarlaria irtengo dira oholtzara ostiralean, 22:30ean



Olatz Etxeberria eta Ione Gorostazu

### «Probatzeagatik eman genuen izena»

Iazko I. Euskarazko Bakarrizketa Lehiaketako sarituek aurtengoa ere ez dute hutsik egingo 06



### → 'Elikaduraren subiranotasuna' ikusgai Alegian.

Aralar institutuak Eskolako Agenda 21eko konpromisoa sinatu du, «iraunkortasunaren alde» lan egiteko; ikasturte honetako gaia elikadura eta nekazaritza ekologikoa denez, elikaduraren inguruko erakusketa antolatu dute kultur etxean. 05

LAGUNA

ERABILI WEBGUNE BERRIAK!

tolosaldea  
leitzaldea  
villabona-aiztondo  
ibarraldea  
alegialdea  
anoetaldea  
tolosa

sartu zure gertukoenean!

[www.hitza.info](http://www.hitza.info)

# Viana de Cega-ko dantzarien bisita astebururako

Udaberri dantza taldearekin hitzartutako elkartrukea dela eta bisitatuko dute Tolosa

**Erredakzioa** Tolosa

Datorren asteburuan Viana de Cega-ko (Valladolid) kultur-talde batek bisitatuko du Tolosa. Udaberri Dantza Taldearekin batera, emanaldia eskainiko du Asociación de Folklore La Rotonda taldeak.

Duela bi urte hasi zen bi dantza taldeen arteko harremana, eta elkartruke bat egiteko ideia sortu zitzaion. Horrela bada, Udaberri Viana de Cega herrira bidaia egin zuten pasa den uztailan. Asteburu-pasa hartan euskal dantza eta musika tradizionala erakusteko aukera izan zuten tolosarrek, eta baita emanaldi berean parte hartu zuten Cáceres eta Valladolideko dantza, jantzi eta musikak eza-

gutzekoa ere. La Rotonda folklore elkarteak eta Udaberri talde tolosarrak badute antzekotasunik, biek urte luzeetako ibilbidea baitute atzean. Gainera, bi taldeek estatu mailako folklore jaialdirik garrantzitsuenetan parte hartu izan dute beren eskualdeko ordezkari gisa.

## Asteburu osorako bisita

Viana de Cega-ko taldea larunbat goizean iritsiko da Tolosara, eta bazkalordura bitartean Udaberri kideekin herriko txoririk esanguratsuenak ezagutuko dituzte. Ondoren bi taldeek elkarrekin bazkalduko dute Lizardi elkartean.

Arratsaldeko 18:00etan emanaldiari hasiera emango zaio Berdura Plazan, eta Valladolideko nahiz Euskal Herriko dantzez gozatu ahal izango dute bertaraten direnek. Igande arratsaldean, bazkalondoren, etxerako bidaia egingo dute La Rotonda taldekoek.



Udaberriko dantzariak pasa den uztailan Viana de Cegan. HITZA



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Udaletxeko pleno aretoan egin zuten prentsaurrekoa ezker abertzaleko kideek. I. URKIZU

# Tolosako Udalak estilo aldaketa bat behar duela dio ezker abertzaleak

Herri-inkesta eta eztabaida blogaren bidez Tolosako herri programa osatuko dute

**Itzea Urkizu** Tolosa

Joan den larunbatean Tolosako ezker abertzaleak prentsaurrekoa eskaini zuen udaletxeko pleno aretoan, maiatzean egingo diren udal eta foru hauteskundee-tara aurkeztuko direla jakitera emateko, eta «bide horretan herri programa egiteko prozesuari hasiera» emango diotelako. Herri programa horren baitan, ezker abertzaleak hainbat ekimen burutuko ditu, eta zenbait tresna jarri nahi ditu herritarren eskura, «hauen beharretan oinarrituriko herri programa jasotzeko».

Azken zortzi urte hauetan ezker abertzalea «udal politikatik

baztertuta mantendu» dutela nabarmendu zuten, eta denbora tartea honetan politika eta administrazioaren zentzuzko esparrutan «udal jarduerak nabarmenki okerrekin egin» duela ere bai. Honen aurrean, ezker abertzalea «ilusioz eta kemenez gainezka» aurkeztuko da datozen hauteskunde-etara.

## «Aldaketa beharrezkoa da»

Ezker abertzaleko kideen esanetan, «azken urte hauetan garbi geratu da Tolosako Udalean beharrezkoa dela aldaketa». Azken bi legealdietan estilo pertsonalista eta autoritarioa nagusitu dela diote, eta horri erantzuteko «estilo berri bat» proposatuko dute udalerako, «eduki nahiz gestio estiloan freskotasuna eta berritasuna» ekarri asmoz.

Ildo honi jarraituz, «ezker abertzaleko kide diren gizon-emakumeek interes pertsonalengatik ez» dutela parte hartuko adierazi

zuten, «soldata ederrak» jasotzea eta politika profesionalean jardutea euren jomugetatik baztertuz.

## Gatazka politikoa gainditzea

Proposamen berrian ezker abertzaleak gatazka politikoa konpontzea, aldaketa sozio-politiko sortzea eta herritarren ongizatea bermatzea ildo nagusi izango dituela baieztatu zuten. Lan horretan «herritarren ahotsa jaso ahal izateko bitartekoak jarri».

Ekimen hau bideratzeko, datozen bi hilabeteotan Tolosako ezker abertzaleak arloko proposamenak jasoko dituela jakinarazi zuten prentsaurrekoan, horretarako bide desberdinak erabiliz: etxeko etxeko inkesta zabalduko dute ondoren buzoien bidez iradokizunaketa proposamenak jasotzeko, eta herri programaren bloga eta helbide elektronikoa ere zabalduko dituzte, eztabaida-gune izango diren mintegiak antolatuz.

## Irudia ◊ Anoeta



# LEGALIZAZIOAREN ALDE

Joan den larunbatean ezker abertzalearen legalizazioaren aldeko hainbat pankarta zintzilikatu zituzten eskualdeko herri desberdinetan, «proiektu

politiko guztiak legalak izan behar dutelako». Anoetan, herrian zehar nahiz N-1 errepidean jarri zituzten. HITZA

# Aroztegieta kalean lau etxebizitza zozketatuko dituzte bihar 19:30ean

21 lagunek hartuko dute parte zozketan; Tolosako Udalak zozketa nola egingo den azaldu du

**Erredakzioa** Tolosa

Aroztegieta kaleko 4. zenbakian dauden lau etxebizitza zozketatuko dira bihar, hilak 10, udaletxeko Areto Nagusian. «Urtarrilaren 31n Alkate Dekretuz eman zitzaion oniritzia adjudikaziorako onartu eta baztertu behin betiko zerrendaria», azaldu dute Tolosako Udaletik.

Hala, honen arabera, 21 lagunek izango dute parte hartzeko aukera. Zozketa 19:30ean hasiko da.

## Zozketa sistema

Fede emaile publikoaren aurrean egingo den zozketan 21 eskatzailek hartuko dute parte, eta bi zaku erabiliko dira hau gauzatzeko. Lehenengoan, eskatzaileen zenbakiak sartuko dira eta bigarrenengoan, lau etxebizitzetara dagozkien bolatxoak.

Eskatzaileen zakutik bolatxo bat aterako da eta etxebizitzetara zakutik beste bat. Horrela, eskatzaile



Aroztegieta kaleko lau etxebizitzak. A. IMAZ

leen zakutik ateratako lehen lau bolatxoek jabeen etxebizitza bat egokituko zaie. Gainontzeko eskatzaileak banan-banan aterako dira, itxaron zerrenda osatuko ahal izateko.

Behin zozketa eginda, udalak esleipendunen baldintzak aztertuko ditu. Horietakoren batek, ez balitu baldintzak beteko, etxebizitza erreserba zerrendako hurrengo eskatzaileari esleituko zaio.

# Xanti Alberdi Zubizarreta irakaslea saritu dute

Bestalde, izena eman daiteke jada Tolosaldea Institutuko langile eta langabetuentzako ikastaroan

**Erredakzioa** Tolosa

2010eko Lanbide Heziketako gela eta tailerretan Praktika Onei Saria banatu dira. Sarituen artean, Aipamen Bereziarekin, Tolosan lan egiten duen irakasle bat aurkitzen da: Xanti Alberdi Zubizarreta. Irakasle honek ondorengo lana aurkeztu zuen: *Titulatuak lanbide errazteko, ikasle ohien jarraipena on line*.

Xanti Alberdi Tolosaldea Goi mailako Lanbide Heziketa Institutuko irakaslea eta Lantokiko

Prestakuntzarako koordinatzailea da. Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetzak, ikasleen artean gauzak ongi egiteari eta etengabeko hobekuntzari lotutako jarduerak eta balioak sustatzeko eta sistema multimedien bidezko irakaskuntza bultzatzeko sortu zituen sari hauek.

## Ikastaroan parte hartzeko

Bestalde, hilaren 14an, *IKTak (Enpresa 2.0: wikiak, blogak, sare sozialak, sindikazioa)* (40 ordu) ikastaroa hasten dela eta lekua dagoela gogorarazi dute Tolosaldea Goi mailako Lanbide Heziketa Institututik. Ikastaroa langile eta langabetuentzat zuzenduta dago eta doakoa da. Izen emateko 943 65 11 47 telefono zenbakira deitu edo ikastetxera gerturatu.

## → Laburrak

### Miren Amuriza eta Julio Sotorekin bertso afaria

**IBARRA** Subegi Kultur Elkartearen bertso afaria antolatuko dute hilaren 12an, larunbatean. Bertan Miren Amuriza eta Julio Soto bertsolariak egongo dira. Izen emateko eta txartela erosteko ondorengo telefono zenbakira deitu behar da: 627 60 61 97 (Txan).

### Lizarrako Inauterietara joateko gonbitea

**IBARRA** Lizarra eta Ibarren arteko senidetzearen baitan, talde desberdinen arteko harremanak aurkitzen dira. Lizarran hilaren 26an, larunbatean, Inauterietara ospatzen dira eta Bartolako kideak gonbidatu dituzte bertara. Hauek herritarren artean zabaldu nahi izan

dute gonbidapena. Ondorioz, Lizarrara joan nahi duenak izena eman behar du Atari, Zubiaurre edo Gaztetxean, hilaren 12a baino lehen. Bartolatik azaldu dutenez, «lo egiteko lekua jarriko digute Lizarrako adiskideek. Aldez aurretik izena ematea garrantzitsua da, zenbat joango garen jakin nahi baitute. Bartolatik beraz, herritar guztiak gonbidatzen ditugu egun guztiko jaira». Azkenik, artzai-andrez jantzita joan behar dela ere azaldu dute ibarretarak.

### Bonberenean Kañeria 13 taldea hilaren 12an

**TOLOSA** Bonberenean Kañeria 13 taldeak kontzertua eskainiko du hilaren 12an, larunbatean. Emanaldia 22:30ean hasiko da. Kañeria 13 taldea Arrasate-tik etorriko da Tolosara eta beraien Hardcore-Punk doinuak eskainiko dituzte Bonbereroko oholtzan.

## Iragarki laburrak

### ALOKAIRUA

■ **Ile apaindegia.** Alegian, ile apaindegi bat alokatzen da. Interesatuek deitu 665 70 82 08 telefono zenbakira.

### SALGAI

■ **Egongela osoa.** Bi sofa, hiru mahai, lau aulki, hiru lanpara eta alfombra. Guztia berria dago, sofak izan ezik.

Prezioa: 450 euro. Interesatuek deitu 685 73 25 30 telefono zenbakira.

### LANA

■ **Garbitzailea.** Tolosaldeko osalaritza enpresa batek, garbitzaile behar du. Interesatuek Curricular Vitae-a *ibanmu-noa@hotmail.com* helbidera bidali beharko dute.

## Tolosa ◊ Aisialdia



## GALDEREN JOKOAN HERRIAN BARRENA

*Jeiki Jeiki* ekimenaren barruan, larunbatean ginkana egin zuten 6-12 urte bitarteko 250 gazte txok. Kirikiño, Kazkabarra eta Ttentek aisialdi taldeetakoek hartu zuten parte. Galderen jokoa ibili ziren. Aranburu jauregian galderak topatu, eta

horien erantzunen bila herriko dendetako erakusleihoetan dauden paneletara joan ziren. Ondoren askaria, globoak... eduki zituzten Aranburun. Galderen jokoa edozein herritarrek egin dezakeela ere nabarmendu dute udaletik. HITZA



Bihar da irteeran izena emateko azken eguna. HITZA

## Untzue-Monreal ibilbidea egingo dute Aizkardikoek

Igandean 07:00etan aterako dira Olaederra kiroldegitik. Bihar da izena emateko azken eguna

**Eneritz Maiz** Villabona

Aizkardi Mendi Elkartekoek igande honetan ere mendi irteera egingo dute. Kasu honetan, Untzue-Monreal ibilbidea egingo dute.

750 metrora dagoen Untzuetik abiatuko dira eta 990 metro dituen Peña de Untzuera igoko dira. Carrascal (1.156 m) menditik ja-

rraituko dute eta ondoren Alaitz (1.160 m) igoko dute. Bertatik, Elomendi edo Higa de Monrealera (1.278 m) joango dira eta hortik hasiko dira jaisten Monrealera iritsi bitarte.

Ibilbidea egiteko zazpi ordu beharko dituztela aurreikusten dute eta guztira 23 kilometro izango ditu ibilbideak.

Irteera honetara joan nahi duenak, bihar baino lehen eman beharko da izena. Horretarako, 649 71 71 82 telefonora deitu beharko da 20:00etatik 22:00ak bitartean. Aizkardi Elkartean bertan ere egin daiteke. Igandean 07:00etan elkartuko dira Olaederra kiroldegian aurrean ibilbidea egiteko.

## Hip hop dantza ikasi nahi duenarentzat ikastaroa Asvinenean

**Erredakzioa** Aduna

Asvinenea arte eszenikoen laborategiak hip hop dantza ikastaroa antolatu du. Hilaren 12an, larunbatean izango da 11:00etatik 13:00etara. Nere izango da irakaslea eta dagoeneko plaza gutxi geratzen direla adierazi dute ikastaroaren antolatzaileek.

Ikastaroan izena emateko [asvinenea@gmail.com](mailto:asvinenea@gmail.com) helbidera idatzi behar da edo 665 73 80 81 telefono zenbakira deitu. Kuota 20 eurokoa da eta 2101 0152 68 0011421476 Kutzako kontuan sartuz edota transferentzia egitera koan izena jarriz egin daiteke. Asvinenea eskolak, hip hop dantzak gustuko dituzten guztiak ikastaroan parte hartzera animatu nahi ditu.



Hilaren 12an izango da ikastaroa. E.M.

## Generoa bertsolaritzan aztertzekeo hitzaldia

Bihar izango da Leire Iburguren azpeitiarraren solasaldia 18:00etatik aurrera Mintzolan

**Erredakzioa** Villabona

Bertsozale Elkarteko Genero batzordeak *Umorea: generoa bertsolaritzan* jardunaldiak antolatu ditu, gaur egungo ekarpen nagusiak plazaratzeko. Jardunaldien baitan bihar bertan 18:00etan Mintzolan Leire Iburguren azpeitiarrak *Nolako umorea egin nahi dugu emakumeok arte eszenikoetan* hitzaldia eskainiko du.

Iburgurenek feminismoaren eta generoaren inguruko master bat egin zuen pasa den ikasturtean eta horren bukaeran eginiko tesinarako egindako ikerketa da bihar plazaratuko duena. Generoa bertsolaritzan eta arte eszenikoetan ez ezik, umorearen gaia ere jorratuko du.

**Umorea**

Azpeitiarraren iritzi oro har, emakumezkoen eta gizezkoen umorea ez da horren diferentia. Edonola ere, esparru honetan gizezkoen mundua nagusitzen da: «Erreferente baten exagerazioaren bitartez sortzen da umorea. Abiapuntua, behintzat, erre-

ferente bat da: gizarte horretan ezaguna den gertaera, pertsonaia, elementu edo leku bat. Kontua da gaur egungo gizarte gizezkoen eremua dela, eta umorea eremu publikoko erreferentziekin egiten denez, askotan ikusi eta entzuten ez diren errealitateak kanpoan geratzen dira. Ondorioz, emakumearen eremuaren inguruko edo intereseko umorerik apenas egiten da. Beraz, gai horien inguruan umorea egitea zaila da, jendeak ezagutu egin behar dituelako. Hala ere, hori da gure nahia, nolabait ikusezintasunean dauden erreferenteen inguruko umorea egitea».

**Emakumeak bertsotan**

Bertsolaritzan emakumezkoen presentzia gero eta ugariagoa bada ere, bertsosai askotan emakume bakarra ikusten da taula gainean. «Badirudi emakumeak betetzen duen papera emakumearena dela, singularrean. Ez dirudi askotariko emakumeak daudenik! Gero eta emakume gehiago ari da bertsotan, era askotako emakume gehiago, baina oraindik asko dago egiteko, bai bertsosai formatuaren inguruan, bai gaien inguruan».

Tesina jorratzerakoan, lau emakume bertsolari elkarrizketatu zituen Iburgurenek eta horien hausnarketak aurkeztuko ditu biharko hitzaldian.

## Zabalik dago ura eta zabor tasen hobariak eskatzeko epea

Otsailaren 25ean bukatuko da tasak ez ordaintzeko edo gutxitzeko eskaerak egiteko epea

**Erredakzioa** Zizurkil

Zizurkilgo Udalak ur eta zaborren tasak ez ordaintzeko edo gutxitzeko eskaerak aurkezteko epea ireki duela jakinarazi du.

Aurkeztu beharreko dokumen-

tazioa honako hau da: familiako kide guztien NANen fotokopiak, errolda eta elkarbizitza ziurtagiria eta familiako kide guztien diru sarreraren ziurtagiria.

Era berean, errenta aitortpenaren fotokopia edo egitea behartua ez dagoenaren agiria, langabezi txartela eta INEMetik jasotzen den laguntzaren agiria eta Foru Ogasunak emandako ondasun agiriak ere aurkeztu beharko dira.

Behartsuenei hobariak ematerakoan, udal ordezkariak ez zabu-

garri hartuko dituzte kontuan: alde batetik, familian zenbat kide diren, hau da, etxean zenbat pertsona bizi diren eta bestetik, familiaren hileroko diru sarrerak zenbatekoak diren Profesioarteko Gutxieneko Soldatarekin konparatuz. Gobernuak urtero aldatzen du Profesioarteko Gutxieneko Soldata, eta aurtun, 641,40 eurokoa da.

Ondasun bat baino gehiago dituzten pertsonak ez dute hobariarik jasoko.

Tasa hauek ez ordaintzeko edo gutxitzeko, interesatuek udalak emandako eskaera orria bete beharko dute.

Eskaerak egiteko azken eguna hilaren 25a, ostirala, izango da. Informazio gehiago udal bulegoetan eskuratu ahal da, edo honako telefono zenbaki hauetara deituz: 943 69 10 12 eta 943 69 30 66.

HITZAren eskutik

**"Izan, egin, eragin. Euskal Herrian Euskaraz"**  
DOKUMENTALA DVD FORMATOAN.

EHEren 30 urteko historia.  
Iragana gogoan hartuz, etorkizuneko erronkak marrazteko.

**10€**

**EGIN ESKAERA**  
otsailaren 13a baino lehen  
harpidetza@hitza.info  
902-82 02 01

**berria**  
taldea

ESKOLA EUSKALDUNA ETA PUBLIKOIA  
IKAS KOMUNITATEA

**PEDRO M<sup>o</sup> OTAÑO HERRI ESKOLA**

Pagamenu auzoa, 16 - ZIZURKIL  
Tel.: 943 691 478  
Posta elektronikoa:  
012041aa@hezakuntza.net

**Aurrematraturak:**  
Urtarrilak 31tik Otsailak 11 arte





Ikasleak besteak beste lokotx biltzen aritu ziren. I. GARCIA

## Herri kirolean trebatu dira San Juan eskolakoak

Herri Kirolen euskal federazioko teknikari batekin aritu ziren hainbat joko egiten Elorri frontoian

**Erredakzioa** Alegia

Alegiako San Juan eskolako haurrek herri kirolean trebatzeko aukera izan dute orain gutxi. Hezkuntzako egitasmu baten bitartez Herri Kirolen euskal federaziorekin harremanetan jarri zen



Gurasoek jolastokiko lurrean margotu dituzte jolasak. HITZA

## → Laburrak

### Karroza eta konpartsen lehiaketan izen-ematea

**TOLOSA** ▶ Inauterietako karroza eta konpartsen lehiaketan parte hartzeko epea zabalik dago. Lehiaketan parte hartu nahi duenak izena eman deza-ke bai kultur etxeara joanez (goizez eta arratsaldean), baita internet bidez ere, honako helbide honetan: [www.tolosakou-dala.org/inauteriak/](http://www.tolosakou-dala.org/inauteriak/).

### Oargirekin Behorlegi mendia igotzeko aukera

**TOLOSA** ▶ Hilaren 13an Behorlegi mendia igotzera joango dira Oargi mendi elkarteak. Ton-tor hori iparraldean dago eta izen bereko herritik igoko dira bertara. 1.000 metro inguruko igoera egin behar da, hiru orduko ibilbidea eginez. 07:00etan aterako dira Tolosatik mendizaleak. Izena emateko 688 698 642 izenbakira deitu behar da edo [info@oargi.org](mailto:info@oargi.org) helbidera idatzi.

# Aralar institutuak Eskolako Agenda 21eko konpromisoa sinatu du



Konpromisoa sinatzeko ekitaldia egin zuten iragan ostiralean kultur etxean. HITZA

«Agenda 21aren eskutik iraunkortasunaren alde lan egin nahi dugu», azaldu dute Aralar institutukoak

**Erredakzioa** Alegia

Alegiako Aralar institutuak Eskolako Agenda 21eko konpromisoa sinatu du, udalaren babesarekin, kultur etxean egindako ekitaldian. Institututik azaldu dutenez, «Agenda 21 proiektuaren eskutik iraunkortasunaren alde lan egin nahi dugu». Ikasle- en lanetik eta hausnarketatik sortzen diren ekarpenak aintzat hartzeko prestatasuna azaldu du udalak. Modu horretara, ikasleek ikastetxearen eta udalerriaren ingurumen-kalitatean eragina duten faktoreak aztertzeke, erabakiak hartzeko eta beraien ahotsa entzunarazteko aukera izango dute.



'Elikaduraren subirotasuna' erakusketa ikusgai dago kultur etxean. HITZA

Eskolako Agenda 21 urtero ingurumenean eragina duen gai bati buruz hausnarketa, diagnostikoa eta ekarpenak edo proposamenak egitea bultzatzen dituen proiektua da. Bide batez, Aralar institututik azaltzen dutenez, «eskolako partaide guztien erantzukizuna, betebeharrak betetzeko ardura eta balore demokrati-

koak indartzen ditu». Ikasturte honetako gaia elikadura eta nekazaritza ekologikoa da eta horren baitan erakusketa antolatu dute kultur etxean, *Elikaduraren subirotasuna* izenekoa. Herri osoari zabalik dago erakusketa eta etzi arte bisitatu daiteke, 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 18:00etara.

## Villabonako HEZKUNTZA PUBLIKOA

Euskalduna, Denona eta Denontzat  
Proiektu bateratua, berritzailea, inguruan txertatua

Matrikulazio epea:

Urtarrilaren 31tik  
Otsailaren 11ra

Haur Hezkuntza Arroan (2-6 urte)  
Lehen Hezkuntza Arrazainen (6-12 urte)  
Tel.: 943 69 35 12 • Tel./Faxa: 943 691 413  
012277aa@hezkuntza.net

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza  
Arrazainen (12-16 urte)  
Tel./Faxa: 943 69 37 33  
012952aa@hezkuntza.net

JANGELA • GARRAIOA • ORIENTAZIOA • GURASO ESKOLA

# Gurea zine aretoko taula gainean, II. Euskarazko Bakarrizketa Lehiaketa

Ostiralean 22:30ean hasiko da eta sei bakarlarari ariko dira. Sarrera 5 euro ordaindu beharko da

Iazko arrakasta eta balorazioa positiboaren osten, lehiaketa hazten joatea nahi dute

**Eneritz Maiz** Amasa-Villabona

Ostiralean hasiko da Amasa-Villabonako II. Euskarazko Bakarrizketa Lehiaketa. Hamaika lagunek eman dute izena eta lehen saioan, sei bakarrizketa egilek hartuko dute parte. Garbiñe Astiazaran, Xabier Barriola, Olatz Etxeberria, Erika Olaizola, Eneritz Artetxe eta Ione Gorostarzu, hain zuzen.

22:30ean hasiko da saioa eta Gurea zine aretoan izango da. Sarreak dagoeneko 5 eurotan salgai daude Kixubi eta Amasa okindegietan eta Euskal Herriko Antzerkizale Elkarteak egoitza. Egunean bertan leihatilan erosteko aukera egongo da.

10-15 minutuko bakarrizketa egin beharko du lagun bakoitzak. Epaimahaia, testua, antzezpene

eta euskara baloratuko ditu. Testuari dagokionean honen jatorria, moldaketa, egitura, mamia eta originaltasuna hartuko dituzte kontutan, besteren artean. Antzezpenera erreparatuta bakarrizketaren gauzatzea, gorputz eta ahots erregistroak, espazioa, inprobisatzea eta publikoarekin konektatzea hartuko dute aintzat. Euskararen kasuan, aldiz, erabilera, hika edo zukako erregistroak, erdarakadak, hitz joko edota esamoldeak baloratuko dituzte.

Epaimahaia, Belen Cruz, Josune Zabala eta Joxean Cuberok osatuko dute. Aurkezle lanetan Eñaut Gantxegi, Ixabel Agirresarobe eta Anartz Iturbe ariko dira. Bigarren saioan, hilaren 18an, Jon Plazaola, Txiki Martinez, Barry Barrez, Nahia Hualde eta Mailu Arruti ariko dira. Saio ba-



Udal ordezkariak eta EHAZEko kideak izan ziren ostiralean egindako aurkezpenean, Villabonan. E. MAIZ

koitzetik bi bakarrizketa egile pasako dira finalera. Sariak ere izango dira: lehenarentzat 800 euro, bigarrenarentzat 450 euro eta publikoaren saria lortzen duenarentzat 250 euro.

Udal ordezkariak eta EHAZEko kideak, oso balorazio «positibo» egiten dute. «Urteetan mantendu eta hazten joan» nahi dute «dagoena sustatu eta lagunduz eta ez dagoena sortuz», diote.

## ↓ II. Euskarazko Bakarrizketa Lehiaketa

### GUREA ZINE ARETOAN

▪ **Noiz.** Lehen saioa hilaren 11n izango da, bigarrena 18an eta finala 25ean. 22:30ean hasiko dira.  
▪ **Sarreak.** Kixubi eta Amasa okindegietan eta Euskal Herriko Antzerkizale Elkartearen egoi-

tzan (Mintzola Fundazioaren eraikinean), 5 euroren truke.

▪ **Parte-hartzaileak.** Garbiñe Astiazaran, Xabier Barriola, Olatz Etxeberria, Erika Olaizola, Eneritz Artetxe, Ione Gorostarzu, Jon Plazaola, Txiki Martinez, Barry Barrez, Nahia Hualde eta Mailu Arruti.

## Olatz Etxeberria eta Ione Gorostarzu • Bakarrizketa egileak

# «Euskarazko bakarrizketetan behar handia dagoela ikusi dugu»

**E. Maiz** Berastegi

Olatz Etxeberria eta Ione Gorostarzu berastegiarrak dira. Iazko II. Euskarazko Bakarrizketa Lehiaketan parte hartu zuten. Lehenak, aurreneko postua eskuratu zuten eta bigarrenak aldiz, publikoarena. Aurten berriz eman dute izena.

Azken entseguak egiten ari dira buru-belarri. Beraiekin batera entseatzen du Xabier Barriolak ere. Elkarki lagunduz prestatzen dituzte bakarrizketak.

**Iazkoa eta gero, berrir eman duzue izena.**

**Olatz Etxeberria.** Esperientzia oso polita izan zen. Izugarriko urduritasuna izan genuen baina gero oso ondo pasa genuen. Baina aurten ere beldurrarekin nago. Ione nire aldean oso motibatuta dago. Iaz oso gaizki pasatu nuen eta ez nuen nahi.

**Ione Gorostarzu.** Oso pilota da. Le-

hengo urtean gainera ez genuen espero. Probatzeagatik eman genuen izena.

**Nolatan animatu zineten?**

**I. G.** Irrati bidez-edo entzun genuen. Berastegin antzerki talde bat dugu eta bertatik Olatz, Xabi Barriola eta hiruak animatu ginen. Bakarka uste dut inor ez zela animatuko baina taldearen babesean izena eman genuen. Antzerako maila, testua eta estiloak ditugu. Iaz saio bat izan zen eta aurten bi saiotan banatu dute. Hirurok batera izango gara eta nik izugarriko poza hartu dut. Ez nuen bakarrizketerik nahi.

**O. E.** Babes handia da hirurok batera izatea. Iazkoa lehen aldian genuen. Herritik kanpo ez genuen inoiz horrelakorik egin.

**Lehen aldian eta sariarekin etxera.**

**O. E.** Sorpresa handia izan zen, ez genuen espero. Gainera egunean bertan, krisi handi bat ere izan genuen.



E. MAIZ

**I. G.** Ez genuen espero inondik inora ere. Ez genekien zerekin egingo genuen topo eta niri esaterako azkena egitea egokitu zitzaidan. Lehena, Porrotx izan zen, bigarrena Jon Plazaola,.... maila handia ikusten genuen eta hirurok aldagaitaratu sartu eta ihes egin nahi genuen. Lotsagarrikeriaren bat egingo genuela iruditzen zi-

tzaigun. Baina oholntza gainera igo eta azkenean disfrutatu egin genuen.

**Ostiralean berriz igoko zarete oholntza gainera. Guztia prest?**

**O. E.** Ione aspaldian hasi zen bakarrizketa lehiaketan hemen dela esaten. Nik gogo handirik ez nuen eta ez entzunarena egiten nion. Biok batera gaudenean

ondo sentitzen naiz eta bera, bakarrizketa oso lasai egoten da baina ni...

**I. G.** Nik gozatu egiten dut. Baina berak ere bai. Beti berdina esaten du Olatzek - irri artean - eta gero irabazi egiten du!

**Testuak zuek idatzitakoak dira. Zertan oinarritzen zarete?**

**O. E.** Bai guk idazten ditugu. Uste dut gainera beste autorearen batean hartuz gero, puntuazioa jaitzen dutela. Iazkoan nik ezkontzak kritikatzan nituen eta Ionak ama baten kezak azaltzen zituen alaba eta senarraren inguruan. Aurten aldiz, nik supermerkatu bateko gorabeherak kontatuko ditut.

**I. G.** Nik errealitatean oinarrituta, txiki izatearen komerkiak azalduko ditut. Eguneroko gauzetatik hartzen ditugu gaiak.

**Nola ikusten duzue honelako lehiaketak antolatzearena?**

**O. E.** Behar handia dagoela ikusi dugu euskarazko bakarrizketetan. Euskaraz oso gutxi dago. Eta iazkoaren ostean leku pila bate-tik deitu digute.

**I. G.** Oso ondo dago. Bide asko ireki dizkigu. Guztietara ezin izan gara joan baina era berean jende asko ezagutzeko eta elkartruke-rako aukera eman digu.

# Ikusmenak ikaskuntzan izan dezakeen garrantziari buruz hitzaldia

Ikusmenarekin erlacionatutako arazoak ezagutu eta hauei konponbidea nola eman aztertuko dute bihar

**M. Ugartemendia** Ibarra

Ikusmenean izaten diren arazoek haurren ikaskuntza prozesuan berebiziko garrantzia izan dezake. Hori dela eta optometristek zenbait azterketa egiten dizkiete haurrei, izan ditzaketan arazoak topatzeko.

Hori dela eta, Teresa de Olabarria eta Beatriz Comes optometristek ikusmenaren osasuna

zaintzen ikasteko tailerrak burutu zituzten Uzturpe Ikastolan. Ur-tarrilaren 25ean eta otsailaren 2an Lehen Hezkuntzako 1. go eta 2. mailako ikasleen ikusmenaren balorazioa egin zuten, gai hauek aztertu ondoren: ikusmenaren zolitasuna, begien mugimendua, begien konbergentzia puntua eta estrabismoa.

Azterketa hauen emaitzak emateko eta ikusmenak ikaskuntzan duen garrantzia nabarmentzeko hitzaldi bat emango du Teresa de Olabarriak bihar 18:00etan Uzturpe Ikastolako areto nagusian. Zuzendaritzak «gaiarekiko interesa duen pertsona oro gonbidatzen du» hitzaldira joatera.



Optometristak ikastolako ikasleei ikusmenaren balorazioa egiten. HITZA

## Ormazabal diputatuak Ibarako herritarrekin bilera egin du

«Gipuzkoa Eraikitzen legealdi hasieran sortu genuen, ez dauka hauteskondeekin zerikusirik»

**Erredakzioa** Ibarra

Carlos Ormazabal diputatua Gipuzkoa Eraikitzen ekimenaren baitan Ibarako herritarrekin bildu zen herriko nahiz Gipuzkoako gaiari buruz hitz egiteko.

Ormazabal, Garapen Iraunkorreko Departamentuaren diputatua, 10 bat herritarrekin elkartu zen astelehenean, Ibarako udal-letxeko Pleno Aretoan. Bertan, alde batetik diputazioak azken 3 urteetan landutako Kudeaketa Planaren berri eman zuten eta bestetik, han bildutako herritarrek euren iritzia eta ekarpenak aurkezteko aukera izan zuten.

Gipuzkoa Eraikitzen izeneko ekimena Aldundiaren kudeaketa herritarrekin partekatze eta aztertzeko helburuarekin sortu zuten Gipuzkoako Foru Aldundiak. Gipuzkoako diputatuak nahiz foru zuzendariak lurraldeko udalerrietako talde eta herritarrekin bilduko dira, herritarrei kudeaketa planaren exekuzioa eta emaitzak helarazteko eta haien iritzia eta ekarpenak jasotzeko. Bilerak hauek herriko hainbat talde eta elkartetako kide josten dira. Parte-hartzea bermatzeko eta hurbiletik herritarren iritzia ezagutzeko galdetegi bat pasa zitzaien ekitaldira joandako herritarrei.

**Teresa de Olabarria** • Optometrista

## «Ikusmen osasuna zaindu behar da»

**Erredakzioa** Ibarra

Teresa de Olabarria optometrista ikusmen arazoak dituzten haurrekin aritzen da lanean, Visual-t terapia zentroan. Bera izango da hizlaria biharko hitzaldian.

**Zein dira hitzaldian jorratuko dituzten gaiak?**

Hitzaldi hau Ibarako Ikastolan Lehen Hezkuntzako lehenengo eta bigarren mailako ikasleekin egin diren tailerren osagarri izango da. Umeei ikusmenarekin zerikusia duten azterketa batzuk egin zitzaizkien. Hitzaldian gurasoei jasotako emaitzak zeintzuk izan diren eta ikusmenak ikas-

kuntzan duen garrantziaz zenbaterainokoa den erakutsi nahi dugu.

**Zeintzuk dira ikasleek izaten dituzten arazo ohikoak?**

Arao ohikoak begietako koordinazioarenak, ikusmenaren hauteskondearenak edo begietako mugimenduenak izaten dira. Arao horiek irakurketan edo kirolean eragina izan dezakete, esate baterako.

**Zein izan dira tailerren emaitzak?**

Orokorrean, umeak ongi zeuden, baina, arazoren bat zuten umeren bat ere topatu dugu. Gehienetan umeak ongi ala gaizki ikusten duen hartzen da kontutan, baina askotan garrantzitsuak diren

zenbait gaitasun ez dira neurritzen. Guk gaitasun hauek aztertzean, beraientzat ezezagunak diren zenbait arazo topatu ditugu. Normalean trebetasun hauetako arazoak dituzten pertsonak, eskolako errendimenduan ere arazoak izaten dituzte, eta hau aztertzea ere gustatuko litzaiguke.

**Nola konturatu gaitzke haurrek izanditza arazoak?**

Haur batek sintoma zehatz batzuk baditu, adibidez ez bazaio irakurtzea gustatzen, egun guztian zehar despistatuta dagoela badirudi edo arretarik ez duela jartzen ematen badu ikusmenaren azterketa zehatza egin behar diozu. Azterketa horretan arazo

zehatz bat duela ikusten badugu, terapia bat egin beharko du. Eta, hori da zehazki guk egiten duguna. Ikusmenaren terapia hau arazoei aurre egin eta ikusmenaren gaitasunak trebatzeko da. Garrantzitsuena edozein zalantza edo susmoren aurrean, arazoa konpontzeko profesionalengana jotzea da. Ez dugu haurra kexatu zain egon behar, beraiek ez baitute esango gaizki ikusten dutela.

**Zer egin daiteke begiak zaintzeko?**

Prebentzioari dagokionez, gurasoei aholku batzuk ematen zaizkie. Adibidez, haurtxoak direnean estimula ditzatela esaten diegu beraien ikusmenaren garapena hobea izan dadin.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info) / Tel.: 943-65 56 95

**HILETAREN BALIOA Txina Inperiala**

Funeraria Vascongada ere pertsonen dugu pertsona bakartzak bere neurriko fileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Bereskurazena da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

**FUNERARIA VASCONGADA EHOZKETAK**

902 402 900

[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com)



17°  
6°

GOIZA	LAINTUTA
ARRATSALDEA	LAINTUTA
BEROENA	17°
HOTZENA	8°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** www.tolosaldean.hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@iragarri.net.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 118. ibarra@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak  
S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaaldeko  
beste 77 eragile

**Hitza-k  
Bai  
Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Arnezketza, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## Irudia Tolosaldea



## ADI BIDEGORRIKO SEINALEEKIN

Geroz eta gehiago dira bidegorri sarean modu batera edo bestera kirola egitera animatzen direnak. Honek, hala ere, zenbait arazo ere sortzen ditu, jende gehiegi biltzen baita bertan: bizikletaz da-

biltzanak, oinez paseoan daudenak, korrika ari direnak... Bidegorrian istripuak ekiditeko eta denak batera bertan gozatu ahal izateko zenbait seinale jarri dituzte Tolosa eta Alegian. R. CALVO

## Agurrak

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak  
jaioberriak - jaunartzeak...

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletzeko bulegoa

agurrak

## Agenda

### DEIALDIK

■ **Villabona.** Oinezkoen pasabidea gaur 09:00etan irekiko dute berriz ere. Asteleheneetik zoru irristakorraren aurkako tratamendua ematen aritu dira bertan eta horregatik egon da itxita.

■ **Tolosa.** Tls-bat sailak eta jai batzordeak txarangentzako bilera antolatu du gaurko. 19:00etan izango da kultur etxean. Antolatzaleek txaranga guztietako ordezkariak bilera-rako deia luzatzen diete.

■ **Asteasu.** San Pedro Jaiak antolatzeko Bilera Orokorra egingo dute gaur 19:00etan kultur etxean. Asteasuko Udaleko festa batzordeak, urtero festean antolakuntza laguntzen duten herriko elkarte eta taldeei dei egiten die bileran parte hartze- ra, berdin bere ideia eta proposamen berriak aurrera eramateko laguntzeko prest dauden herriarrei ere.

■ **Villabona.** Aizkardi mendi elkartekoak Untzue-Monreal mendira joango dira trabesia egitera igande honetan. 23 kilometroko ibilbidea egingo dute. 07:00etan Olaederra kiroldegitik irtenko dira. Izena emateko azken eguna bihar izango da. Aizkardira bertara ere joan daiteke izena ematera edo 649 71 71 82 teleno zenbakira deitu 20:00etatik 22:00etara.

■ **Ibarra.** Udaleko Kirol Jar-dueretakoko diru laguntzak eskatzeko epea. Eskeraurteko azken eguna martxoaren 15a izango da. Oinarriak nahiz aurkeztu beharreko agiriak webgunean eskuratu daitezke ([www.ibarrakoudala.net](http://www.ibarrakoudala.net)) batetik, eta bestetik, kiroldegiko bulegoetan ere eskatu ahal dira 08:00etatik

13:00etara eta 15:00etatik 22:00etara.

■ **Belauntza.** Martintxo elkartean izena emateko bigarren deialdia ireki dute. Lehen deialdian herriko 30 pertsonak eman zuten izena. Bigarren deialdi honetan herrian jaino baina Belauntzan bizi ez direnek izango dute aukera izena emateko. Horretarako, interesatuek Belauntzako udaletxetik pasa behar dute. Azken eguna bihar izango da.

### ERAKUSKETAK

■ **Tolosa.** Jeiki, jeikierakusketara Aranburu jauregian martxoaren 20a bitarte. Asteartetik igandera 17:30etik 20:30era ikusi daiteke. Erakusketaren zuzendaria Nestor Ardanaz argazkilaria tolosarra da.

■ **Tolosa.** Wayang Goleken Indonesiak txotxongiloak ikusi daitezke martxoaren 13a bitarte TOPIC-en. Asteleheneetik ostialdian 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara ikusi daitezke. Asteburu eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

■ **Tolosa.** Gko galerian Mixmedia erakusketara ikusi daitezke aiparilaren 2a bitarte 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

## Farmaziak

### GAUR

- **Tolosa.** Etxebeste, J. M. Gernikako arbola, 3. 943 65 10 45.
- **Lekunberri.** Mendia, M. I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan itzultzen erantzukizunik.

**bertako egunkaria**  
egin zaitez harpidedun!

**902-82 02 01**  
(Asteunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

[www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)

eraman/bidali izen-emate orria:  
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa  
Herriko plaza 1 • 31880 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>